

# Herri bat eta bi alarde

**Irunen** jai giroan ospatu dute San Martzial eguna. Eta alardeetan ez da istilurik izan. Lehen aldiz, gainera, Ertzaintzaren babesik ez du behar izan alarde mistoak ibilbidea egiteko. Normaltasuna izan dela esatea, ordea, ez litzateke zuzena. Bi alarde izatea ez baita normala. Eta emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna bultzatu nahian hamaika urtetan jai giroko ekitaldia aldarrikapen bilakatu beharra ere ez. Batzuek *desfilea* eta besteek *manifestazioa* egin behar izatea normala ez den hein berean.


Urte hauetan guztietan, udal agintarien jarrerak ez du askorik lagundu egoera normaltzen. Eusko Legebiltzarrak Berdintasunerako Legea onartu eta epaitegiek Udalarari eska-

HIZ  
PI  
Deak

Xabin Makazaga

tu ziotelarik emakumeek desfilatzeke duten eskubidea berma zezan, alardea antolatzeari uko egin zion Irungo Udalak. Jose Antonio Santano alkateak «ezbairik gabe» esan du Udalak antolatuko balu alardeak mistoa izan beharko lukeela. Horregatik ez duela antolatzaren ere esan zezakeen. Irunen alardeari buruzko bi ikuspegi kontrajarri daudela begi bistakoa da. Gehiengo emakumeak soldadu gisa parte hartzearen kontra egon dela ere bai. Baina alkate batek horri zilegi eta egoki iriztea, eta emakumeen parte-hartzea bermatzea «gehiengoaren borondatearen menpe» egongo dela esatea, hori ez litzateke normala izan behar.

**Iñigo Lamarca** arartekoak estu hartu izan ditu Irungo eta Hondarrribiko udal agintariak eta, Berdintasunerako Legea bete beharrekoa dela argudiatuta, parte-hartze parekidea aldarrikatu du. Atzo, urteetako ohitura hautsi, eta ez zen agertu Irungo alarde mistoa babestera. Egoera normalizatzeko, ordea, agintarien jarrera aktiboa ere ezinbestekoa da oraindik.



Hitz beste

Anjel Lertxundi

## Penaren penaz


Itunak ixten ari dira. Herri sena goratsuenaz, nola ez. Horrela gauzak, hainbeste joan-etorriren ostean, hor entzungo diegu esaten ahaleginak *pena* merezi izan duela. Ondo esana: zer merezi, eta pena, ahaleginak pena merezi izan duela, alegia. Eragin diguten pena, sentitu duguna. Pena darion ikuskizun eder baten lekuko penatuak gara, hori da kontua. Eta gu, esker onekoak izaki, prest gaude pena sentitzeko, penaren handia jartzeko etorkizunaren balantzan.

Pena, edo bihotz barruko zimiko sentimental hori. Pena, edo auzo lotsak eragindako deserosotasun erabatekoa. Ohituta gaude: barruko eta kanpoko bi pena klase horiekin egiten dugu, goizero, gure periodikoen orri pasa. Bertan zer ikusiko, eta gaurkoak ez duela atzokoa hobetu; biharkoak gaurkoa hobetuko duenik, inork ez duela horren esperantzarik.

Hala ere, diote *pena merezi* izan duela. Diotenaz ez konturatzea, horixe penagarriena.

## Montxo

### IRTEERA OPERAZIOA



# Hitzarmenen azpian

Jose Luis Alvarez Enparantza, "Txillardegí"

Idazlea

**J**akina da: zuhaitzek ez dute oihana ikusten uzten. Eta, bide beretik, Hauteskundetatik hona jasan dugun hitzarmenen zurrumbilotik at ez dugu gauzatu dena ikusten.

Zer gauzatu den? Gauza asko.

Politikaren alorrean Nafarroan ikusi duguna oso adierazgarria izan da. «Terrorismoa»-ren kontrako borrokaren izenean, Nafarroa Bai-ren kontrako gurutzada ikusi dugu; nahiz puntu horretan Na-Bai nekez aurkez badaiteke ere ETaren aldekotzat.

Baina gaurko neure honetan ez dut politikari buruz idatzi nahi. Bestek egin dezakete azterketa hori hobeki prentsa informazioa besterik ez duen honek baino.

Itzul nadin, beraz, neure harira.

Eta nik hau topatzen dut ezkutan: euskararen bazterketa egon dela.

1982ko Azaroaren 24an onartutako Legeak («Euskararen erabilpenerako arauketa») honela dio bere 5. Artikuluan, 2. paragrafoan: «Euskal herritarrei honako funtsezko hizkuntza-eskubide hauek aitortzen zaizkie: Arduralaritzarekin eta Autonomi Elkartearekin, harremanak hitzez eta/edo idatziz euskeraz edo gaztelaniaz izateko eskubidea».

Hizkera errazagoaz: Baskongadetako euskaldunok geure Administrazioarekin euskaraz mintzatzeko edo harreman idatziak izateko eskubidea dugu.

Hots, eta Gipuzkoari dagokionez, PSOEko batzarkidea den Rafaela Romerok ez daki euskaraz. Gaurtxe goizean (Ekainaren 25), Radio Euskadi delakoan, entzun dugu aitortzen berak euskaraz ez dakiela; baina huts hori konpontzeko «ikasteko asmoa» duela. Gauden beha!

Espainiera hutsez bizi den jendeak ez du gabezia honetan batere arazorik ikusten; eta gehienik ira-

kurketa politiko hutsa egin du: «*por el hecho de que las Juntas de Guipúzcoa sean presididas por un representante del PSOE no se rompe el mundo... Además los relevos son muy sanos*».

Hala ere, hautatutakoak euskaraz besterik ez baleki, kristorenak eta bi botako zituzten *psoezialista* horietzek.

Espainiera baztertzea baita bekatu barkagaitza. Euskara baztertzea, hutsaren hurrena.

Gu euskaldunok are gure aldeko legetasun apurretan beretan ostikopetzea, eguneroko ogia da; eta ez du inor asaldatzen.

Rafaela Romero andereak euskara menderatuko ez dueno, ordea, espainiera inposatuko du.

Baina, badakizue, «*Todos los españoles tienen el deber de conocer la lengua española oficial del Estado, y el derecho a usarla*» (Const.1978; Art.3.1).

Euskarari dagokion paragrafoan ere klarki mintzo da: «*Las demás lenguas españolas serán tam-*

*bién oficiales en las respectivas Comunidades Autónomas de acuerdo con sus Estatutos*» (Art.3.2).

Oihenart xuberotarra datorkit gogora berriz ere: «Buruti hasten da arraina karatsen» (*Atsotitzak*, 106; «karatsen» hori guk «kiratsen» esaten dugularik).

Gipuzkoako Batzarrean goitik etorriko da, buruzagitzatik, euskararen bazterketa.

Eta William Mackey kanadar soziolinguista ospetsuaren oharraz oroitzen naiz.

Orain dela 20 bat urte Euskal Herrira egindako bisitaldi batean ari ginen solasean. Eta galdera hau egin zidan: «Zein hizkuntzaz hitz egiten da Euskal Parlamentuan?».

«Salbuespen batzuk salbu —erantzun nion— espainiera hutsez».

Mementu horretan hizkeraren tonua aldatuz, sekula ahantziko ez ditudan hitz hauek esan zizkidan: «*Alors vous êtes mal partis*» («gaizki abiatu zarete», alegia).

Kataluniarrek, ERCren eskutik, baltikar bidea hartzen saiatu dira. Alegia, «kataluniar orok du katalana ezagutu beharra, eta erabiltzeko eskubidea» (1978ko Konstituzioa koptatuz, baina katalana ardatz).

Baina han ere espainiolisten blo-

kea hemen bezain gotorra izaki, ezin. Elebitasun sasi-diglosotik eta eskubide pertsonaletatik haratago joaterik ez.

Gutziz bestelako jokabidea aurkitu nuen Rigako Parlamentuan.

Bisitari nembilen lurralde hartatik orain dela hogeitatu urte. Sobietar okupazioaren ondorioz, Letoniako populazioaren erditsua errusieraduna da.

Hala ere, Legeak ez du inolako elebitasunik onartzen: «Letoniako hizkuntza ofizial bakarra letoniera da».

Letoniako Parlamentua letonieraz ari zen egun hartan, nahiz diputatu mordo bat rusofonoa izan. Errusiar diputatuak, horretara, letoniar hau edo hura letonieraz hasiz gero, aldibereko itzulpena eskaintzen zuten entzungailuak beldarrietara eramane, eta amaitu arte horretara jarraitzen zuten ekitaldia. Rigako Parlamentua letoniera hutsez ari.

Letoniarrak 2,5 milioi dira, eta estoniarrak 1,5 milioi. Demografia ere aldatu die okupazio luzeak. Baina ez dute amore ematen. Bestela akabo liratekeela segurantzian.

Bada garaia Dublinera begiratu beharrean, Tallinn, Riga eta Viñiusera begiratzeko.